

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

111/20 prozedura laburtuan epea jartzea

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 3. epaitegian administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (111/20 zenbakiko prozedura laburtua) izapidetzen ari da; Luis Fernando González Fernández jaunak aurkeztu zuen errekurtsoa, Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariak 2020ko otsailaren 17an emandako ebazpenaren kontra, zeinaren bidez ezetsi egiten baitzen 2017/18ko LEPeko "A212 - kirol jardueren kudeaketa" deialdiko bigarren ariketako behin betiko emaitzen kontra aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa. Hortaz, errekurtso horretan interesdun direnei ager daitezen deitzen zaie, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikulua ildotik. Bederatzi eguneko epea izango dute horretarako, lege beraren 23. artikulua ildotik.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut,

Vitoria-Gasteizen, 2020ko uztailaren 9an

Udal legelaria

AMAYA ALFONSO ACEBO